


FATXADA AIREZTATUA

Fatxada aireztatuen kontzeptuak oinarri bezala, aireztatua den kamera bat du eraikinaren estaldura eta itxituraren artean, entengabeko aireztapen bat baimentzen duelarik kamera barruan.

Fatxada aireztatua, isolamenduzko geruza batekin jartzen da, eraikinaren ezaugarri termikoak hobetuz. Sistema honen itxitura panel edo plakaz osatua dago, hauek bata bestearen gainean jartzen direlarik.

Hainbat material egoki badaude akabera mota hauetarako, esate baterako; fibrozementua, buztinezko piezak (terracota), zinka, portzelanikoa, presio altuko panel laminatuak (HPL) edota aluminio konpositea.



Eraikitze mota hau, puntakoa bihurtzen ari da arkitektoen proiektuetan, izan ere hainbat abantaila bait dauzka:

- %30-eko aurrezpen energetikoa du
- Isolamendu termiko bikaina eskaintzen du, barneko tenperatura primeran mantentzen duelako.
- Isolamendu akustiko moduan ere oso ondo funtzionatzen du, poluzio akustikoa %20-ean murriztuz.
- Egokitze kostu oso baxua eta ia mantenurik ez.
- Instalakuntza erraza du obran eta etorkizunera begira, piezak ordezkatu daitezke.
- Eraikinaren jatorrizko egitura babesten du eragile atmosferikoen aurka.
- Berrikuntza estetikoa eta akabera material asko aukeran.